

PREDIKUAK

lesaka, 1857

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

PREDIKUAK

lesaka, 1857

I

D.^a Santissimae Trinit.s

Docete omnes gentes, baptizantes eos in nomine Patris et Fillii Spiritu Sancti.

Math. c. 28

Jesucristo gure Jaunaq, vere Apostolubey errancittion azqueneco itzaq, ceneqn. acabatzen baitu S. Mateoq vere Evangeliyua, digute aditzerat ematten gaurco Misteriyuaren vesta; zuazte, erratten cion, eta eracutsizazube, instruitzazube nacione guciyeq batayutzen ttuzubelariq Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu santubaren ezenian: Ytzoq claroqui digute eracusten Jangoico izayeran bat denaren battan vadi-rela iru persona distintuaq, eta Apostolubey J. Cristoq aguinyucionaq, digula aditzerat ematten, iru Persona Santuba oquin izenian garela vatayatubaq, eta ala viardugula ere izan, batayatubaq eguiyazqui izattecotan.

Bay N. A. M , batayatubaq gara, Aitaren eta Semiaren eta Espiritu Santubaren izenian: !
Cer dicha au guq batere mereci vague Jangoicuaq guri eguinziguna! Batayo santuban alistatu ganinyuben Jangoicuaq J. Cristoren banderetan, eta emanzetzaigun onengatiq

Christavaren izena, eguiñiq Christoren disciplulubaq. Oh! izena, ventaja dignidade eta gloriya guciya mereci dubena: joh izena, izen guciyen gañecua, eta guizoniq famatuben titulubaq chicatzen ttubena! Viño ha! N. A. M. izenau obligaciyoriq grabienaq paratzen ttubena, corresponditu biar badiogu izena oneq errannai dubenari.

Batayo santubaren graziaz edo mesediaz, J. Cristoren fediaz eta ejemplubaz participatzen dugun guziyeq, viar dugu gure obrequin aditzerat eman eta manifestatu, garela J. Christoren banducuaq, eta izenian Salvadoriaren disciplulubaq garen vezala, bayetere garela ala vicitza moduban, onengatiq nere asunto guziya da zubey errattia certerat gattuben obligatzen Batayuan eman zetzaiGUN Christavaren izena oneq, baldin prestatzen badidazube zeben atencioa.

Asunto

Aunitz diré batayuan guereganatuganittuben obligaciyuaq: lentavicicoriq, batayuan emanetzaiGUN Christavaren izenaz oroitzen, Cristabaq garela consideratzen dugun aldiyero, viardigu consideraciyu oneq, oroitzepena oneq servittu espueletzat, guri Jangoicuaq eguin zigun mesede añ beressiyaren agradecimenturat muguitzeco; eta eguiyazqui. ¿Cer fabore añ estimagarriyau, Jaungoicuaq gu eslegittu izanduba Christauteco, J. Cristoren federat tocatzeco, batere onetaraco gure battan merecimenturiq icusi eta izan vague, daudelariq amberze eta amberze millare guizon ondatubaq Gentillidadiaren itzala, illunbe eta utseguñetan? Ezaumentu eta agradecimentuba oneterat gattu exortatzen Apostol S. Pabloq, Colosensiey escribittu cion carta batian erratten digulariq ematziozube graziyaq Jangoicuari eguin vaicaninyuben digno vere arguiyarequin Santuben suertiaren alderdirat sarzeco.

Arrazoyarequin deitzen dió Apostoluba oneq suertia, Christaven estadu dichosuari, ara nola suertian ezpaita consideraciyoriq izatten eztere beresscunzariq suertia tiratzen dutenen artian, eztere suertia erortzen baitzayo bati, yaquiña, aberetsa, noblia, edo virtuosua ceñen den, baiziq verebat tocatu baitattequiyo ignorantari, baxuari, pobriari edo viciosuari, ala guri ere suertez vezala, viño Jangoicuaren escu misericordiosuaz guiyatuvaco suertiaz, etzetzigun tocatu yayotzia, Turcuben, Yuduben edo Heregien artian, baiziq Cristaven artian, Christabaq izan ganyezen: etzen gure aldetiq onetaraco verze arrazoy, eztere verze merecimenturiq, baiziq araco Jaunaren borondate uts, utsa, ceñen escubetan baitaude suerte guciyeq, eta nayzandubaitzigun eguin, verze milloy eta milloy criyaturey ucatu dion mesede beresiiyau.

Auche S. Agustiñen viyotz agradecittuba 30.garren Salmuaren esplicaciyuan erratterat muguitzen zubena "Zure escubetan daude gure suertiaq, eztut icusten, Jauna, merecimendu bacarbat, Zuq ni osasuna erdisteco estadurat eslegittutzeco, ateririq guizonaren cendenciyaren impiedade, gasstotasuna generalatiq; eztut icusten merecimenturiq bacar batere suertez ni Jesucristoren tunica uquitzerat, au da Jesusen fedia izatterat allegatzeco.

Eguiyazqui N. A. M. ¿cembat milla arima etzittuben Jangoicuaq sortuco gu yayoguiñen ordubartan, eta etariq ezin contala Gentillidadiaren Judaisuaren eta herejiyaren utseguin tristien artian yayo cirenian, naizanduzuben Jaunaren Omnipotenciyaq, guq errecibiganezan izayera aren Elizan, non baitugu Jangoicua gure Attatzat, aren Semia, Erredentoretzat, aren Sacramentubaq gure arimen enfermedadien erremedyotzat, Cerutiq yautsizen oguiya gure yanaritzat, eta Eliza Catolicuaren batzarrian Ama tierna eta cariñosabat gure sabeletzat. ¡O eta ceñ agradecittubaq viardegun egon gure viziyaen egun

guziyetan, guq gozatzen dugun, eta guretzat dichariq andiyenen Ytturri den, Cristavaren izena onetaraco.

Viño onetaz gañerat, viardu Cristabaq bere battan formatu Christoren imagiña, ceñen izena paratu baizetzayon Batayo santuban: Christaba izattiaq erran naidu, dio catecismuaq, Christoren discipuluba izattia, eta onecheq du obligatzen Christoren leguia, seguitzerat, bayetere aren virtutiaq: N. A. M. daramagu guere battan izen bat J. Christo gure Capitana, humilla, castua, caritatibua, eriotzaraño obedientia, itz batian, aren virtute guziyen tropa Sagrada guere beguien anzian paratzen diguna, digu izena oneq erratten, dettubaq garela seguitzerat, ez pecatuben illumbiey, baiziq Santidadiaren arguiyari. J. Cristoq guri utzi zigun testamentutzat eta aguinyu seguiganiozala, eta imitacioni au, ura vezala vizitzian da gauza precisua Cristabarenzat salvatu viar badu: onengatiq dio Apostol S. Pauloq, Jaunaq Ceruraco señalatzubena ura, senalatu zuben ere, aren Semiaren imagiñaren confedadecua izatteco: Viarduba Cristabaq eramen vere viyotzian irachiya vere Attaren, vere redentoriaren, eta vere maestro divinuaren imagiña.

Viño hay! Cembat eta cembati Cristabaren izen apreciagarriya onetaz gloriyatzen direney, erran dattequion moduren batian Apocalipsiyaco Obispo bati erran zezayona: "Zuq duzu viziya izena, viño illa zaude, vada niq icusten dut, zure obraq eztaudela merezimentuz betiaq Jangoicuaaren presenciyari" Dudariq ezta vere obraquin cristabaren izenari corresponditzen dionari, seguituriq J. Christo, santidade guziyaren modelari, dela orduban izenau, oneq Munduba onetan graziaz bete, eta eriotzian vetico viziya emanen diona, viño aunitzey izena oneq ezta emanen vetico viziriq,ceren eztioten corresponditzen, batayuan emanetzayon izena oni, an orduban paratu zetzazquiyon legue eta obligaciyaq ez cumplittubaz: hoq unittu ziren J. Cristoren exerciturat soldadubaq vezala trabajatzeco, aguinzen zuben vezala Apostol S. Pauloq, viño ezta icusten equin obretan humildaderiq pacienciariq, garbitasuniq, araguiyaren mortificaciyoriq, eztere verze virtuteriq, ceñ baitire J. Cristoren miliciyaco armaq: hoq daramate evequin Christoren izena, viño ezta oquin vattan icusten Salvadoriaq obratu zuben accione bacar bat ere.

¿Cer erranen ganuque, baldin icusten baguenuque pareta batian pintatuba Demoniyuaren imagiña izigarribat, eta demoniyuaren azpico aldian escribittubaq onaco letra hoq "auche da J. Cristoren imagiña eguiyazcua? Erranen ganuque, ceñ gaizqui eldudiren itz hoq imagiña onequiñ edo borratu itz hoq, edo quendu imagiñau bada auche vera da guertatzen araco persona, vere battan cristabaren tituluba, cristoren imagiña daramanequin, eta Batayuan Christori seguittuco ciola eman zuben itzarequin faltatzen dubenarequin, bada oneq vere vizitza moduban du pintatzen Demoniyuaren imagiña vere maldadiequin, bada borratu Cristabaren izena, edo conformatu vizitza moduba, J. Christoren vizitza modubarequin.

Ez Ysraelguaq direla erratten duten guciyeq, dire Ysraelitarraq, eztere Aaronenganiq eldu diren guciyeq diré aren humiaq, erratten zuben Apostol S. Pabloq; au erratten zuben Apostolubaq, Ysraelgo humien artian arqitzen zen diferenciya aditzerat emattecco, batzubeq eldu baitziren Patriarca Santubetatiq bacarriq araguiq, eta verziaq virtude eta piedadez: batzubeq ziren Ysraelitar eguiyazcuaq, ceren ez bacarriq oven añciñacuen fedari, baiziq bayetere equin obrey zioten seguitzen, viño verziaq ziren Ysraelitarraq bacarriq Zendenciyaq, viño etzittuzten cumplitzen even añciñecuaq guardatu cittuzten Puebluco legue eta Mandamentubaq; auche vera erran dezaquet niq badirela vi cristau clase edo genero, batzubeq ala direnaq araguiq edo cendenciyaq, au da, equin Buratsoaq cristabaq izanaz, batayatubaq izandu direnaq eta Pueblo Santurat, Sacerdociyo errielaren

generacio eslegitturat batayaco atia onetatiq sartu zirenaq, viño hay ¡Christasuniq izenian verzeriq eztutenaq.

Ayta S. Jn. Crisostomoq, otaz mintzo delariq dió ¿errazidazu ¿nondiq ezautuco dut niq zarela Christaba? Toquittiq? bestiduratiq? Yatecotiq? Ytzetatiq? edo negociyetatiq? Bada errespondizazu aditzen nauzuna. ¿Cein da zuq maizeniq arquitzen duzun itchia? Da Eliza norat viarbaitu acudittu cristabaq. Elizaco funciyueterat Meza Nagusirat, Sermoyeterat J. Cristoren doctrina icasterat, edo da araco danza era vilcuida nasiyen itchia ura, Yococo toquiya ura, ustatuba ura? ¿da zure bestidura honestua, modestua eta J. Cristo zure Mayestro divinuaren humildadia significatzen dubena, edo da indecenciya eta sobrañiyazco luxuz apanyuba? ¿Emplegatzen duzu zu mingaña Jangoicua honratzen, aren izen santuba alabatzen, zure lagun projimua instruitzen, edo juramentubaq eguitten, erreguaq botatzen itz loy, torpe eta indecentiaq erratten, iñor engañatzen, murmuratzen eta guezurraq erratten? Escusatzen zara yan edan excesibuetatiq, edo gulaq, ordicariyaq dute erreynatzen zure battan? Zere tratu contratubetan, zure eroste eta salpentetan, zure negociyuetan, da icusten zuzendadia, eguiya eta justiciya, edo guezurraq, enganubaq, usura eta ladronqueriya? Bada ala bada, eztuzu manifestatzen, zu cristaba zarela siñetsieratzen duben testimoniyoriq batere, eztere, presentatzen zere obra eta itzetan Santidade guziyaren ejemplaria edo modela izanduzen Jesucristoren imagiñariq.

¿Naizube yaquin nor diruditen, araco cristau, ala direla Ytzequin erran, eta obrequin alrebes aditzerat ematten duteneq? Diduritte araco Exoduaq pintatzen digun aldaria ura campotiq ederqui apanyuba, viño barreman utsa nena ura diduritte araco salvadoriaq madaricatu zuben arbol Picua ura, ceren icusi zuben osto verdez estaliya viño fruturiq batere vague diduritte viño excattezen enoitu, bacarriq cristabaren campoco iduriyarequin, bacarriq campotiq cristaba izattiaz contentatzen den ura, izena oneq escatzen duben, Santidadiaren fruturiq vague, bacarriq dela on betico suraco.

Badire berze batzubeq erdibanaco cristabaq dettudiozque gunaq, dembora berian Cerurat eta lurrerat veguiratu nai duteneq belaunbatequin cucha Santubari, eta berziarequin Dagonen idoluari cur eguitten diotenaq: diré gloriyatzen oq, ceren guardatzen ttuzten Jaunaren mandamenturen batzubeq, viño ezchuzte guciyeq guardatu nay, enzuten dute meza yay egunetan, etorcen dira sermoyaq aditzerat, eguitten ttuzte limosnen batzubeq, erretzatzen arrosariyaq; viño ya hoy erraziozu baru dattezela garizman, eta Elizaq aguizen duben verze egunetan, varcatu viar diotela etsayari, eguin viar ttuztela vaquiaq arequin, viar dutela sugetatu mingaña, ezi even araguiya, emiendatu even viziyaq, sugetatu even issiyaq, aldaratu ocasiyo eta lagun gaistuetatiq, ya au eztute entendittu nay, onarinecuan equin Cristau izattia, viño anberze molestiya sufritezco eztute cristautasuniq.

Da errattia, oq acompañatzen dutela Jesus Taborco mendiyen, vino eztutela probatu nay aren caliza, ceren miña eta dolorosua den; eztutela yuanay Calvariyaq, Christori vere Pasionian seguitzerat: au guciya da venerable Fr. Luis de Granadaren reflexionia.

Viño N. A. M. J. Christoaq dio, ezin servi dattequiyola vi nagusiyey, eta Christoaq eztu admititzen, eztu consentitzen viyotziq, nonta ezten osua: Cristabaren izenaq ez bacarriq du arrapatzen mandamentubatzen cumplimentuba, baiziq legue guziyarena: Batayuan irachiqui zetzaigunian J. Cristoren humien señaia, utzierazi zetzaigun aldebaterat Diabruba eta onen obra guziyeq, guziyeq bacarbat veressi vague; bada gure zorigasstozcuaq, gu presentatzen garenian J. Cristoren Tribunalerat, vizitza onetan, eta berzian, ezin borra dattequien cristabaren señaia onequin, au ezpada yuaten corresponditzen zazquiyon

cristaben obretaz apanyuba: gure zorigastozcuaq, baldin ezpadugu erametten batayoco estola ura ssuriya, edo baldin ciquindu bazen, Penitenciyaren eta vizitza on baten urarequin garbittuba: asqui da.

Esplicatu dizubet Jangoicuaq guri eguin zigun mesedia, cristautaco escogitziaz, utziriq milloy eta milloy arima, gentillidadiaren Yudaismuaren herejeriyaren illumbe eta utseguñen artian sortzerat: eguin zigun favoria, emattiaz Christabaren izena Batayuan, eta eguittiaz J. Cristoren discipulo: viño dembora verian bayetere presente eguin, Christoren banderetan alistatu eta soldadu eguiñ guñenian, guereganatu ganittuben obligaciyaq.

Acabatuco dugu gaurco Platica onaco Aita andi S. Leoneq J. Cristoren Yayatzian predicatu zuben Sermoi batian erranzittuben itzequin "O Christaba, ezauzazu zure dignidadia, eta batayuaren medioz, naturaleza Divinuaren laguna eguintza onduan, eztedezuzula itzuli nay, zure dignidadia deshonoratzen duben vizitza modubatequin zere lenagoco vileza arerat: Oroizattia zer burubaren miembrua zaren, eta buruba oneq zu illumbien Poderetiq aterita onduban, izandu ziñela aldaratuba Jangoicuaren arguirat eta aren erreynurat: eztedezuzula berriz entregatu nay zere buruba Demoniyuaren esclavotasunarat: Oroizattia J. Cristoq, zu Diabrubaren esclavotasuna onetatiq ateritzeco, pagatu zuben preciyua izanduzela aren odola, eta ez gutiyago: Ojala consideraciya oneq, eguiñerazten valettiguque, cristabaq garen vezala egoqui zazquigun obraq, obra oquin frutuba erditsi dezagun, ceñ baita betico viziya. Amen.

II

Alde eguizazube

Alde eguizazube ardiyen larrubarequin estaliyaq zuben ganat eldu diren Profeta falsubetatiq, eta even barrenetan diré otso arrobatzalliaq: otatiq batzubeq diré araco guizon libertinueq, guizon gasstueq, munduco guizona eq munduco atseguñaq maitettuztena eq, arima cristianetaz Persona devotuetaz burla eta irri eguitten dutena heq, ceñen contra eldu bainaiz gaur mintzatzerat.

Asunto

Yaquinazube N. A. M. viyotza osoqui gogortuba, eta bat condenaciyaq vezperetan dagolaco pruebariq andiyena dela, guziya menospreciatzia, eta ez guizonaq, eta ez Jangoicua errespetatzia, hoq diré impiyaq religioniaren fondoriq eztutenaq, ceñ burlatzen baitiré Jangoicuaren siervo edo neravietaz, aren servitzallietaz, devociyozco actuetaz, gauza santubetaz, plática eta sermoyetaz, eta elizan den guazariq santubenaz: baldin bada nere auditoriyo onetan, onelaco desgraziyariq dubeniq, yaquin veza dela Jangoicuaren veguiyen ancinian gorrotagarriya: abominatio est ante Deum omnis illusor.

Jaungoicuaren semiaq sufrittu zittuben ultrage guciyetatiq, gueyeniq quexatzen dena salmuetan da, aren etsayaq, artaz eguitten citztuzten burla eta irriyetaz: ziren belaunico yarzen, eta zioten salutaciyaq eguitten erreguiari vezala, eta aditzera ematteco au ciotela eguitten burlaz, zittiozten matelezurrecuaq ematten, citztuzten even burubaq alde baterat eta verzerat eraviltzen, eta zioten zorrozqui veguiratzen, faltosoa zela aditzerat ematteco eta deshonoratzeco; ala ere, eztuzube N. A. M. añberze asertuviar Jangoicuaren Semiaren etsayetaz burlatzen ziren Juduben contra, nola orañ artaz Ceruban gloriosua dagonaz, burlatzen diren Cristaven contra; ¿Nor da, erranen didazube J. Cristoz burlatzen den

Cristaba? Orretaraco viardu hereje bat edo ateista bat. Doctore santubaq digute erratten, persona devotuetaz burlatzen zaratenian, duzubela ofenditzen J. Cristo, cergatiq, ara nola guq ematten baittugu guere burubaq ofendittuzat, gure familiyaco edo meneco personaren bat gaizqui tratatzen bada, ala ere Jangoicuaq daduca bere buruba ofendittuzat, burla eta irri eguitten denian aren hume eta sirvientietaz nola baitiré persona virtuosaq, erratten digulariq vere Profeta Zacariasez: Zubeq yotzen zattuztenaq, yotzen ttu nere veguiyataco niñicuaq.

Orañiq gueyago dut erranen: burla au, dela maliziyazco becatubat casiq ezin zuzendu den pecatu bat, guizon bat erorzen denian peccaturen batian flaquezaz, edo tentaciyo bortiz vaten ondoriyoz, baldin vere buruba ezautzen badu, lotsatzen eta confunditzen bada, urriquitzen bada, da disimulagarria, eta barcaziyua mereci dubena, viño pecatu eguinta onduan, arrepentittu viarrian, artaz gloriyatzen bada, eta onela gloriyatzen ez tirenetaz burla eguitten badu, da Jangoicuaren despreciyo formal bat, da izigarrizco lotsa vaqueri bat: verretu oni guisa onetaco burlatzalliau dela, gauza santubey zor zayon errespetuba, verziey galerazteco causa eta motivua, bada ttu paratzen espiritu cobardiyen, burla eq sufrizteco valoreriq eztutenen viyotzian, desconfianzaren eta siñestamentubaren escastasunaren pensamentubaq, da arima virtuosaq aunitz obra on practicatzerat ez atrevitzeco causa, ceren beldur diren arima debota hoq, guizon gassto eta malvaduboquin burlen asuntuba, eta irriyen afera izattia; erran dut direla guisa onetaco guizon oq, ezin corregi eta chuchendattezquenaq icusi dezagun.

Yru gauzaq convertitzen dittuzte peccatarosiq andiyenaq: Jangoicuaren itzaq, virtuosuen ejemplubaq, eta Espiritu Santubaren inspiracione eta muguitziaq; viño persona devotuen burlatzallioq, ttuzte even burubey cerratzen vide hoq guziyeq, diré Ysaiaseq errattenttigun Juduba eq vezalacuaq. Profeta oneq cion ancin deneti q maiz aditzerat ematten Jangoicuaren justiciya, erratten ciolariq; Jangoicuaq dizube au nere minganaz aguinzen, eta zeren etzen berila arq erratten zubena guertatzen, ziren artaz burlatzen, aren Profeciye cioten contra eguitten, eta ¿ezta anche vera impiuaq eguitten dutena? Predicadoriaq miachatzen ttuztenian Jangoicuaren juiciyuequin ¿eztute erratten "ori munduba espantatziagatiq" diré diren viño gueyagocuaq, por cierto gauza ederraq erratten ttiguzte: Confesoriaq ucatzen badiote absoluciyoa, dute burla eguitten tabernan edo elcarrequin yuntatzen direnian, baldin even amaq edo emaztiaq eguitten vattuzte presente even obligaciyaq, diote erresponditzen, nasten eta durdatzen ttuztela añberzezco solasequin, sardattezela even eguittecuetan; viño adi cer dion Jangoicuaq Profeta Ysaiasez veraz guizon gasstua otaz, burlatuco dela etaz, diola pagatuco burla burlarengatiq, eta izanen direla preso eguiñaq, eta deseguiñaq: ut vadant et capiantur et conterantur.

Ha! N.A.M. baldin emen valitzeque burlatzallia otatiq bat, esnuque erreparoriq izanen aren anciñerat presentatzeco eta erratteco, zara impio bat, bada ez sermoyaq, ez instruccione publicuaq, ez Confesoriaren miachu eta avisubaq, zattuzte muguitzen, zara ezin corregigarri bat, bada persona onen exemplubaq, baitiré virtuterako continuo exortu bat, eztizute mellariq eguitten eta, ¿cergatiq? Ceren etaz zaren burlatzen, erratten duzulariq direla simple batzubeq, pobre miserable batzubeq, munduban nola vizi eztaquitten batzubeq; baldin humillaq badiré, diozu dela cobardia eta vaxeza: baldin caritativuaq, diré ondasunen casatzallia; baldin yan edanian escusatubaq, dela hipocresia edo itchurazco virtutia; baldin devotuaq, dela enbusteriya, direla beatuaq eta benetaq, zara etaz burlatzen eta ttuzu equin istiaq eta gestubaq eguitten; eta onen guciyan onduan, baldin baduzu convertitzeco muguidura edo deseyo on bat, zure viyotzian duzu ittotzen, cergatiq duzun lotza zuq burlatu zaren devociyozco obra eq practicatzece, eta zaren beldur zuq eq eguitten

battuzu zutaz ere direla burlatuco, eta onengatiq zara beti len ziñena.

Religioniarene fondoriq eztutenaq, persona prestu eta debotuetaz burlatzen diren lentavizico burla generua onetaz, bada ere berze bat, naiz ez izanagatiq añ gasstua, da aguiz caltezcua gure salvaciyuarentzat, eta mal pecado comuna? eta ceñ da au? da araco Zerurat yuan nai dutenena, Jaunaren Mandamentubaq guardatu vague Apostol S. Pauloq digu erratten "Nere anayaq, Jangoicuaq eztu sufrittu nay artuz burla eguittia" Deus non irridetur Ad. Galat.c.6. eta du añaditzen, guizonaq vilyucodubela erein zubena: baldin laboreri bateq erratten baluque, niq naidut landa onetatiq vilyu arto cantidade andi bat viño eztut lurriq irauli nay, aratu, apanyu eta erañay, ¿eslitzeque au izanen burla eguitte bat? eta iduritzen zaizube, errazago dela virtutiaq arimian sarzia, artua zuben lurrian vaño? Vereganatzia bateq Santuben yaquinduriya eta Zeruco ondasuneq lurraco aberastasunaq vaño! eta certan dago au? Ycusi dezagun, guq naiganuque humillaq izan, viño humillatubaq izan vague, espirituco pobriaq, viño deus ere falta vague, obedienciaq viño gure inclinaciyuen contra deuseriq eguin vague; castuac eta garbiyac, viño araguiya mortificatu bague.

Confetsatzerat etortzen zaratenian, berzeren ondasuna zeben podorian duzubela, gorrotuba viyotzian conservatzen duzubela, pecatuco ocasiyuan zaudetela, iduritzen zaitzube dela penitentiaq izattia? ez por cierto vaiziq Jangoicuaq burlatzia; duzube eguitten Jangoicuaren Semiaren ancinian, belaunicatzen, eta ari matelezurrecuaq ematten cittiozten Soldadubeq eguitten zutena ¿ezta burla eguittia, errattia, zubeq eguitten duzuben vezala "Cer necesidade da añberze tormentatzeco? Jangoicuaq ezcattu sortu galzeco, arq naidu guizon guziyeq salvadattezen; viño errazidazube eztaere eguiya, Jangoicuaq naidubela, munduban diren guziyeq vizi dattezen izan dezaten cer yan? eta alere ¿Zubeq egotten zarate deus eguin vague eta eztuzube trabajatzen viziya irauzteco, zuben vizitza modubaq zubenganiq bacarriq dependitzen vailuque vezala? niq zubeq erratten vaniquizube ez laniq batere eguin zuben viziya ateritzeco, yarrizattezte Jaunaren Providenciyaeren escubetan, Jangoicuaq etzattuzte sortu zubezaz anzteco, naidu mundu guziya vizidadiyen, confia Aren battan eta utzi obra dezala ¿etenedateque errespuesta emanen, Veurreq erran dubena ori guziya ongui da, viño guq seguitzen vaguenittuque Veurreren consejubaq, gu, eta gure familia illen guiñaque gosiaq: bada zubeq niri erresponditzen didazubena munduba onetaco ondasunetaz, ori bera dizubet erranen eternidadeco ondasunetaz.

Jangoicuaq prestatu du vere gloriya arima Cristianenzat, viño naidu eq trabajadezaten gloriya ura merecitzeco; eta artaz dignaq eguitteco; Apostolobaq dio, gauza biarra da trabajatzia veldurra eta icariyareqn salvaciyoraco; eguiya da J. Cristoq encargatu digula vere Evangelio Santuban ezcaygattezela inquietatu yan eta yauzi biar dugunarengatiq, viño ezta icusten encargatu digula, gure arimaz cuidadoriq ez izatteco, al contrarat dió Ceruba irauzteco precisua dela guere burubey borcha eguittia, eta merecitzeco inyarraz valiyatzia "Contendite intrare" Precisu da arri valioso bat erosteco vere ondasun guziya saltzen duben mercatari baten anzerat obratzia; Precisu da gure salvamentuba logratzeco yartzia oraciyuan, apalzia gure griñaq, emiendatzia gure viciyuetatiq eguittia obra onaq, eta verze guisatan obratu, ¿eta nay salvatu? ezta burla eguittia? eta norq eztaqui Ceruco gloriya zaigula aguinyu Pagamenta bat Coro bat vezala? gloriya ofrecittuba badago saritzat, alferrey etzayon ematten, baiziq trabajatzen dubenari: trabaja dezagun bada lurrian Jaunaren serviciyuan, descansa dezagun guero Ceruben aren gloriyan. Amen.

III

D.^a 4.º post Pent

Jesus videns civitatem flevit supra illam. Luc. c. 19

J. Cristo Gure Jaunaq, Jerusalengo Ciudadari vegiratu, eta aren gañian nigar eguitten zuben vezala, icusiriq ancindeneti Ciudadari guertatu viazetzayona vere itsutasun eta obstriñaciyaurengatiq ceren etzuben ezautu Jangoicuaq ura visitatu nayzandu zuben dembora, eztere probechatu, J. Cristo viyalziaz eguin zion favore estimagarriyaz, ala ere guq ere viardugu nigar eguin, anberze eta amberze Cristau gaisstuen desgraciya miserabliaz, casoriq eguinai bague jangoicuaren avisuetaz, aren graziyetaz convertitzeco, illzen baitire pecatuco estado zorigasstozcuan: nigar viardugu eguin oquin desgraciya eguiyazqui nigargarriya onetaz, bada J. Cristoq errandigu veñ viño gueyagotan eta espresioneri q claruenetan, aunitz direla dettubaq, viño guti eslegittubaq; O egui izigarriya! gure atenciyo guziya escatzen dubena! guti direla escogittubaq: Proba dezagun.

1.er Punto

Erratten dudanian guti direla salvatzen direnaq, esnaiz minzo gentilli dadian vizidiren Nazione Ynfieletaz; esnaiz minzo Ydolatriyan vizi diren Erreynubetaz, esnaiz minzo fedia galzeco desgraciya izan duzuten Puebluetaz: Cer eguinda Asia, eta Africaco amberze Probienzieta, lentavizico mendietan amberze Obispo Santu izandu zittuztenetaz? Cer da gaurco egunian Ynglaterra verze dembora batian Martiren isla zena? Cer da Alemaniaco, Prusiaco, Moscoviaco, Sueciaco, Diñamarcaco zati bat? Ha! provinciya ocheq guziyeq casiq ezti ré illen legione batzubeq berzeriq, ango habitantiaq, cisma edo heregeriyarengatiq aldaratu ziren ezqueroztiq Elizatiq; utzi detzagun aparte toquiyoq guziyeq, metigattezen Eliza Catholicuan vizi direnequin, eta icusico dugu Escritura Sagradan, Aita Santubetan, eta arrazoyan verian gueyago direla condenatzen direnaq Christaven artian salvatzen direnaq vaño.

Yru ejemplo famosuaq ttut causitzen Escritura Sagradan justificatzen dutenaq, gueyago direla condenatzen salvatzen direnaq viño: lentavizicua da ubelde generalarena: orduban lurrian vizi zirenaq eguin ziren añ viciosuaq, eta gaizquirat añ issuriyaq, non costumbrien corrupcionia zen generala: aserturiq Jangoicua, goyen goyeniñecuan allegatuzen guizonen maliziyaz, deliberatu zuben biarzittubela destruittu uren ubeldebatequin. Aguinyucion Noeri eguin zezala cucha bat cen baita Elizaco Aita Santubaq diotenenaz, Elizaren, figura, nondiq campuan ezpaita salvacyoriq: ¿cembat persona uste duzube salva cirela cucha artan dilubiyoco uretatiq? bacarriq zorzi dio nere atta S. Pedroq: Noé, onen emaztia, oquin iru semiaq even emaztiequin, eta verze guziyeq ziren itto ubeldecu uretan. Bada baldin jangoicuaq ezpadió varcatu antiguco Mundubari, dio nere Atta S. Pedroq, eta baldin ezpattu salvatu zorzi persona berzeriq, erorieraziriq Ubeldecu uraq gasstuen mundubaren gañerat ¿Pentsatzen duzube, zubeq Christabaq tratatuco zattuztela gogortasun ttiqiyaguarequin baldin eq cittuzten pecatubetan arrapatzen bazattuzte culpagarriyaq?

Bigarren ejempluba de Sodoma, eta Gomorraco habitantiena, oquin castiguba dio nere Atta S. Pedroq da, gaizqui vizi direntzat ejemplare andi bat: Jangoicuaq vere siervo Abrani ezautzerat eman zionian ziyuala galtzerat vi Ciudadia hoq ceñen pecatubaq igan baitziren Ceruriñecuan, Abraham urriquelduriq Sodomitarretaz, artuzuben presente eguitteco libertadia, ez tubela galduviar justuba gasstubarequin batian, Numquid perdes justum cum impio? Gen. C. 18 y v. 23. Hay, Jauna, cion erratten Abrahaneq Jangoicuari, baldin badire Ciudadia onetan verroquey eta amar justo, oq galduco diré verze guciyequin batian, eta eztiozu barcatuco Ciudadari 50 justuboquin gatiq? Bay erran cion Jaunaq, baldin

causitzen battut 50 justo Sodoma guziyan, oquingatiq barcatuco diot Ciudade guziyari: Errancion Abrahaneq, asi naizen casuan seguittuco dut nere Jaunari mintzatzen, naiz ez izanagatiq autsa eta errautsa berzeriq: Verroguey eta amarreateraco borz falta baliraque, galduco duzu Ciudade guziya, cenen ez tiren an berrogueita borz berzeriq? Eztut galduco Ciudadia, cenen ez tiren an berrogueita borz baiziq, erresponditu cion jaunaq: eta ezpadire causitzen berroguey berzeriq? Cer eguiñen duzu? eztut galduco Ciudadia berrogueyengatiq: azquenian allegatu zen amartiñecuan, eta erran cion Jangoicuaq, eztut deseguiñen Amar justo causitzen badire: gauza arrigarriya! Eztire causitzen amar justo Sodoma guziyan, eta ¿eztau prueba claro bat direla condenatuco direnaq aunitz eta salvatu viar dutenaq guti?

Yrugarren ejempluba ez lenagoco verze viyaq viño gutiyago espantagarriyagua da Ysraelitarrena; guziyeq zuten pasatu Ytsaso gorriya, Jangoicuaq eguinzittuben equin favoretan eq desiartuban egondu ziren demboran amberze milagro, alere S. Pauloq digu aseguratzen, Ysraelitarra otatiq guti izandu zirela Jaunaren gustucuaq eta cuasiq guziyeq, desiartuban perezittu zutela, 600, seitan eun millatiq, bacarriq bi Josué eta Caleb sartu tiren promisioneco lurrian. Ep.^a ad Corint. C. 10 v. 5 Numer. C. 14. Eztut onequin erranay, Hebreutarraotatiq vi berzeriq izandu etzirela salvatubaq, ez; eztere au dio S. Pauloq, baiziq gueyenaq zirela Jangoicuaren disgustucuaq, even murmuraciyo, esquer vaguetasun eta desleyaltadiarengatiq, eta onengatiq merecittu zutela ez sarzia promisuneco lurra artan, baizen Cerubaren figura bat, eta delariq au guciya guretzat eracuste eta advertenciya bat, biardugu beldurtu erorziaz gure gañerat desgraciya au bera, eta auche da chuchen chuchena Apostol S. Pauloq ateratzen duben arrazoya; viño nola Elizaco Doctore eta Aita Santubaq baitire escritura Sagradaren interpretiaq, examiñadezagun oq pentsatzen dutena puntuba onen ganian.

2.º Punto

S. Juan Chrisostomoq, ari zelariq predicatzen Antioquian, Synaco buru edo Capitala, edo obequiyago errateco iguzquiya ateratzen den toqui guzico capitala "Amat. tom. 13" eta onegatiq egon baizattequien, gaurco egunian Madrilla dagon viño yendez poblatugua, bada arizelariq Antioquian predicatzen eguin zuben onaco galdetzia au ¿Cemba persona, uste duzube direla ciudadia andiya onetan salvatuco direnaq? Baldin naibaduzube, niq zubey errattia goguan daducadana, eztut uste amberze millare personen artian salvatuco direla eum (100); cergatiq, ezta maliziya eta corrupcionia berzeriq gatzietan, zabarcariya eta epeltasuna berzeriq zarretan; iñorquere eztu cuidadoriq vere humien criyanza eta educaziyuaz; iñorquere bere salvaciuaren celo eta ansiyariq; guisa onetan cion mintzatzen Santubaq Antiocotarrey.

Eta N. A. M. da arquitzen gure mendiau, gutiyago gastatu eta corrompittuba S. Juan Chrisostomoren dembora artan ¿viño ceñetan orañiq irauten baitzuben lentavizico Christau fielen fervoriaq? Ay nere Jesus! Eguiñen dut niq S. Juan Crisostomoq predicatzen zuben Ciudadeco yendiey eguincion pregunta ura, cembat diré erriya onetan salvatuco direnaq? Ez, Nere Aditzalle Mattiaq, eztut eguinen, niq gaur predicatzen dizubedan eguiya vere da izigarriya, gueyaco edatzeco viarriq ez tubena, eta verze alde niq erranezaquienaq servilezaque viarbada cembatten durdaciyoraco; contentatuco naiz errattiarequin botadetzagun, eta edatu gure veguiyaq Christandadia orañ arquitzen den estadubaren gañerat, eta icusico dugu eztela gauza eguiyazcuagoriq Salvianoq erraten zubena vino, Pecatubari izutasuna eta gorrotuba dioten Christau puisco batzebez landarat, cuasiq verze guziyeq direla abandonatzen viziyo eta desordeneterat; eta oran artiño erran dudana ezpada

asqui consulta dezagun gure arrazoyarequin.

3.er Punto

Zubeq daquizube ongui, ñorrere ezin salvadattequiela baiziq onaco vi vidia otatiq batetiq, edo inocenciyaq, edo penitenciyaq; oq oq verze videriq ezta Cerurat yuateco: eta ¿nun causittuco ttugu Batayuan errecibittu zuten inocenciyaq videz dabilzenaq? hoy! ezta ñoizere icusi orañ viño inocenciya gutiyago; bada non causittuco ttugu batayoco santidadia oañiq evequin duten arima zorionecuaq? Religione Christianaren lentavizico mendietan, ceñetan Christau fielaq, ezpaizuten viyotz vera, espiritu bat vera berzeriq cen gauza aguitz rarua eta gaitza causitzia, amberze ciudadobarequin lentavizico graziya conservatzen zutenaq, eta pecatuban berrecaidaq ezchittuztenaq, vino gaurco egunian, cristau gueyenen vizitza moduba, ezta confesiyuen continuco itzuli ingurubat baiziq; allegatu da maliziya eta gasstotasuna alaco gradurat, ya errandezaqueguque, Noeren demboran Jangoicuaq guizonen gasstotasunaz erran zubena, "corrupta est terra et repleta iniquitate" lurra gucyya da arquitzen corrompittuba eta maldadez vetia, ya ezta icusten dio Profeta Oseaseq ez eguiriq eta caridaderiq, ezta erreynatzen Jangoicuaren misericordiyag, eta cuasiq ezta ezautzen Jangoicuaren Yaquinduriya; guziyeq autsi zittuzten inocenciya equin viyotzetan conservatzen zuten burdiñ barraq, blasfemiyaq, guezurraq, adulteriyuaq, eriotziyaq eta verze delicto edo pecaturiq izigarriyenaq bete zuten mundu guziya: odolaq du odola uquitzen, Buratsuaq du humia escandalizatzen, senidiaq senidia ezta icusinay, senarraq naidu vere esposarequin veressi, ezta ñonere desordena berceriq causitzen, Ciudadia da verze Ninive Pecatari bat, non vizi baita bacocho vere deseyuen neurriyaren era verat, erriya da desierto espantagarri bat, non batzubeq ari baizazquiyo berziey autsiquica, elcar pensatzen, non abariciyaq envidiyaq eta gorrotubaq armaerazten battu batzubeq verzien contra; icusi bada emen salvaziyuaren lentavizico vidia baita inocenciya, itsiya personen número andibatenzat.

Eztaba da guelditzen inocenciya galduezqueroz Ceruban sarzeco verze videriq, vaiziq penitenciyaq; eta non diré gaurco egunian eguiyazco penitentiaq? non diré causittuco even vizitzaren zatiriq gueyena pecatubetan pasatu, eta Justiciya Divinuari satisfacciya emattia, trabajuben eta penitenciya eguiyazco baten nigarren medioz even pecatubaq purgatzia pensatzen dutenaq? Hay eta cen veressi eta contatubaq diren! an guti diré non zuben erratten S. Ambrosioq persona gueyago cittubela causittu batayoco inocenciya conservatu zutenaq, eroriezqueroztiq, Penitenciya eguiyazcobat eguin zutenaq viño: S. Ambros. de Penit. lib. 6 C. 10.

O sentenciya icaragarriya! Zer iduritzen zaitzube niq zubey presente eguinttizubedan Escritura Sagradaco ejempluben, Aita Santuben erranen, eta arrazoyaren eracustiaren vistan? Ha! gueyago direla Cristaven artian condenatzen direnaq, salvatzen direnaq vaño; eta cergatiq? Cergatiq gueyago diré gaizqui vizi direnaq, pecatuban dabilzenaq, ongui vizitzen eta virtutia seguitzen dutenaq vaño; bada nola vizi ala ill; nolacua vizitza alacua acavilla dio S. Bernardoq, qualis vita finis ita: guziyaren confirmaciyoraco adi onaco ejemplu laburrau.

Digu contatzen S. Vicente Ferrerreq: Leon Franciyaco Canonge batez; erretiratu zen Canongiau desierto baterat, utziriq vere Canongetasuna; Ylzen S.n Bernardo ilzen egun artan; Yllta, aguertu zetzayon Canongiaren arima vere Obispuari. Obispua oneq galdetu zion vere arimaren estado edo suertiaz, eta errespondittucion guisa onetan "Ni ill ninzen orduba artan, ill ziren 30 milla persona. 30 milla persona otatiq bacarriq S. Bernardo eta ni

yuan guiñen chuchen chuchena Zerurat, verze iru yuan tiren Purgatoriyorat, eta verze oqueita (29 mil) bederatzi milla, vederetzitan eun eta larogueita amaborzaq yuan ziren Ynfernurat betico; au erran cion Canongiaren arimaq vere Obispuari.

¿Nor da bada salvatuco? didazube erranen; izanen da araco Christaba ura, batayuan bereganatu cittuben obligaciyeun eraverat vizidena: izanen da araco penitente eguiyazcua ura, vere vizitza pasatuban eguiñeco pecatubetaz, gue(1)dittu vague nigar eguitten dubena ura; izanen da araco guizona ura, iñoriyere agraviyoriq eguitten eztion ura, viyotza zuzena, escubaq garbiyaq ttubena ura, eta vere Jangoicuaren leguia guardatzen dubena ura; izanen da araco guizon aberetsa ura pobriyen miseriyetaz urriquelduriq limosneterat aplicatzen dena ura; izanen da araco pobria ona ura, bere pobrezaco trabajubaq eta miseriyaq pacienciyaquin sufritzen eta Jangoicuaren borondatiarequin eramentten ttubena ura; itz batian, izanen da salvatuba, pecatu eta pecatu ocasiyuaq utziriq Confesiyo on bat eguiñiq Jangoicuaren Mandamentubaq Elizarenaq guardatzen, vere estaduco obligaciyeun cumplitzen ttubena, moduba onetan graziyan irauten dubena; eguin bada Jaunaq onela, nai baduzube izan Ceruban sarzeco escogittuben numerocuaq, ceñena izanen baita betico gloriya. Amen.

O Jangoico Santuba! O Jesus Samentatuba! Ycusi bazanuben dembora batian zuri humillqui escariyua eguitten Abrahan bateq Sodomitarren desgraciya sumatuta, uste dut gaurco egunian eztuzula despreciatuco Ministro indigno naizen vezalaco bateq orañ eguittera nuan súplica edo escariyua eta valdin ezpadut mereci nere pecatubengatiq zutaz aditzia, vederen dizut escatzen Calvarioco mendian, mundu guciyaren presentian eta lotsariq andiyenian issuri zanuben odol preciori q vaguiarengatiq, eta Sacramentu adoragarria orretan manifestatzen diguzun Amoriyo negurririq eztubenarengatiq. Zure ganiq misericordia Sodomitarrentzat Abran justubaq escatzen zizun vezala, alaber Jauna Sacerdote desleyal oneq dizu preteñitzen vere aditzalle guziyen salvaciya. Eztedezazula vada Jesus amorosua permitittu nere auditoriyo onetan dagon aditzalle vacar baten desgraciya au. Peligruban gaude, eguiya da eta onecheq durdariyatzen gattu, berdultzen gattu viño espero dugu. Zure graziyetaz lagunduriq vencittuco ttugula pasioniaq eta tentacioneaq, eta moduba onetan aterico garela munduba onetatiq victorioso zure gloriyarat. Amen.